2012-10-18an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 18-10-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko urriaren 18an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Martinez andrea eta Ezpeleta, Urrutia eta Merino jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 18 de octubre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Martínez y los Srs. Ezpeleta, Urrutia y Merino.

## 1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2012-06-21 eta 2012-09-20

## 2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

### 2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko urriaren 11ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da ondorengo erabakiaren berri:

ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** 758

**DATA:** 2012-10-02

**GAIA:** MIGRAZIO ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESKUORDETZEA

**ESPEDIENTEA:**

**INTERESDUNA:**

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa ikusita, Alkate naizen honek honako hau

**ERABAKI DUT**

1. Migrazioko udal zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketa Maria Arantzazu Iregui Villar andreari eskuordetzea. Eskuordetze horrek ez dakar berarekin hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko eskumena.

2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

3. Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.

Eskoriatzan, 2012ko urriaren 2an
ALKATEA

**3.- ZIGORRA KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK.**

Gizarte zerbitzuetako arloko zinegotzi arduradunaren proposamenez 2012ko maiatzaren 23an "1 ZENBAKITIK 9 ZENBAKIRA SAN PEDRO BERRURBANIZATZEKO" obren kontratuaren kontratistari zigorra jartzeko espedientea aztertu da.

Kontratistak entzunaldian jarritako alegazioak ikusi dira eta honako hauek hartu behar dira kontuan:

Kontuan hartu beharrekoak:

**BAT.-** Kontratazioa arautzen duen baldintza agiriaren arabera, gutxienez langabe bat kontratatzera behartuta zegoen kontratista, eta pertsona hori zein, beharrezkoa izanez gero, kontratatu beharreko langileak Eskoriatzan erroldatuta eta langabezian egon behar ziren. Horri gehitu behar zaio 18. baldintzan, eskaintzak baloratzeko irizpideen artean, kontratatutako pertsona bakoitzeko 3 puntu ematea aurreikusten dela, gehienez ere 10 puntura arte.

EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA enpresak ondorengo proposamena egin zuen lizitaziora aurkeztu zenean: GUZTIRA LANGABEZIAN DAUDEN 4 PERTSONA KONTRATATZEA OBRAKO LANAK DIRAUTEN BITARTEAN, ETA ESKORIATZAKOAK LEHENTASUNA IZANGO DUTE.

ERAIKI, S.L.U.k egindako proiektuari, administrazio baldintza agiriari eta kontratistaren proposameneko zehaztasunei –horien artean 4 langabetu kontratatzea- lotetsita esleitu zitzaion kontratua CONSTRUCCIONES OLLOQUIEGUI SA enpresari.

Enpresa kontratistak bere gain hartutako betebeharra inoiz ere ez zen egon baldintzatuta langileak kontratatzeko benetako beharra egiaztatzeari. Behar hori alde batera utzita, baldintza agirian gutxienez pertsona bat kontratatu beharra eskatzen zen, eta EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA enpresak 4 pertsona kontratatzeko konpromisoa hartu zuen, eta arrazoi horregatik puntuak lortu zituen.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 145. artikuluko lehen paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, proposamen bat aurkezteak berarekin dakar kontratuko enpresariak inolako baldintzarik gabe baldintza agirian ezarritako aurreikuspenak osorik onartzea inolako salbuespen edo erreparorik gabe.

**BI.-** Enplegua erregulatzeko espedienteari eta egoera ekonomikoaren aldaketari buruz kontratistak alegatutakoari dagokionez, honako hau esan behar da:

EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SAk eskaintza aurkeztu zuenean, eta horrela aitortzen du alegazio idazkian, zegoeneko bazuen alegatzen duen egoera ekonomikoa. 4 langabetu kontratatzeko eskaintza egin zenean enplegua erregulatzeko espedientean zegoen enpresa. Horri gehitu behar zaio Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 215. artikuluaren arabera,

kontratuaren exekuzioa kontratistaren gain eta kontura egiten dela, eta legez aurreikusi gabeko egoera bat -eta kasu honetan, gainera, bat-batekoa ez denean-, ezin daitekeela alegatu borondatez bere gain hartutako betebehar bat ez betetzea justifikatzeko.

**HIRU.-** INFRAESTRUCTURA MORGON SL-k -azpikontratatutako enpresa, kontratistak alegatzen duenez-, 4 kontratu egin zituela-eta, esan behar da 1 zenbakitik 9 zenbakira San Pedro berrurbanizatzeko obrak egiteko 4 langabetu kontratatzeko konpromisoa EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SL enpresa kontratistarena izan zela, berari esleitu zitzaiola kontratua, eta bera lotetsi zela juridikoki udalarekin.

Gainera, INFRAESTRUCTURAS MORGAN SL-k ondorengo kontratuak egin zituen:

- 1 kontratua: DAVID BOUZA LOPEZ /// Igeltseroa/// 2012/03/12tik 2012/03/31ra.
- 2 kontratua: TIAGO ALEXANDRO GABRIEL ///Igeltseroa/// 2012/03/14tik 2012/03/31ra
- 3 kontratua: DAVID BOUZA LOPEZ /// Igeltseroa/// 2012/04/28tik 2012/05/11ra.
- 44 kontratua: TIAGO ALEXANDRO GABRIEL ///Igeltseroa/// 2012/04/28tik 2012/05/11ra

Kontratu horietako lehenengo baldintzaren arabera, kontratu horiek Valladoliden obra ekoizpena zabaltzeagatik egin ziren, eta ez da inon aipatzen San Pedro berrurbanizatzeko obrak egiteko direnik.

Aurrez esandako guztian oinarriturik, eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA enpresari 22.495 euroko zigorra ezartzea.

**BIGARRENA:** Miguel Angel Bermejo Fraile jaunari ezarritako zigorra osorik ordaintzeko eskatzea. Ordainketa egiteko 10 laneguneko epea izango da erabaki hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita, eta berariaz ohartarazten zaio horrela egingo ez balu eta epe horretan ez ordaindu, ordainketa obren azken ziurtagiri-kitapenaren kontura egingo dela, eta falta den zatia premiamendu prozedura bidez; eta hala ere, beharrezkoa balitz, behin betiko bermearen kontura.

**HIRUGARRENA:** Alkate jaunari ahalmena ematea ezarritako zigorra kobratzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

## 4.- LANKIDETZA HITZARMENA ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEAREKIN.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatza Kirol Elkarteari prekarioan lagatzea Intxaurtxuetako 9. zenbakiko etxabeko lokala elkarteak egoitza soziala leku horretan izan dezan.

Lokala baldintza hauetan lagatzen da:

1.- Erabilpena prekarioan lagatzen da, hau da, inolako kontraprestaziorik gabe.

2.- Lagatzea 4 urterako izango da 2013ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita, baina, aurrez eten ahal izango da kasu hauetan:

a) Udaletxeak hiru hilabeteko aurrerapenarekin lokala eskatzen badu, eta aurrez justifikatu baldin badu herri edo gizarte intereseko arrazoiengatik behar duela.
b) EKEk lokala itzultzen badu.

3.- Eskoriatzako Udalaren kontu izango dira instalazioen mantentze-lanen gastuak eta baita instalazio horien argindar, ur, berogailu, garbitasun eta zabor bilketa gastuak ere.

4.- Udalak edo bere ordezkariek baimena izan beharko dute lokalera eta gela guztietara sartzeko zaintza lanak eta konponketa eta mantentze-lanak egin ahal izateko.

**Bigarrena.-** Eskoriatzako Kirol Elkartearekin hitzarmena egitea lehenengo puntuan aipatutako lokala lagatzeko baldintzak eta 2012ko ekitaldiaren kargura emandako diru laguntza eta hurrengo urteetakoak arautzeko.

## 5.- ONDASUNEN INBENTARIOAN BAJA.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal inbentarioan baja ematea ondorengo ondasunei:

- RICOH Aficio 1013F, Kultur Etxean dagoena. (inprimagailua, fotokopiagailua, faxa)
- RICOH Aficio 1018 D, hirigintzan dagoena (inprimagailua, fotokopiagailua).
- Canon IR 4570, idazkaritza-kontuhartzailetzan dagoena, (inprimagailua, fotokopiagailua).
- RICOH Aficio 1027, harreran dagoena (inprimagailu, fotokopiagailua, faxa).
- RICOH Aficio 1022, bibliotekan dagoena (inprimagailua, fotokopiagailua).
- RICOH Aficio 3222, museoan dagoena (inprimagailua).

## 6.- GAIXO DAUDEN PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Alkate jaunak ondoren transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

***Preso gaixoen eskubideen aldeko***
***MOZIOA***

*Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribe-txeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau,*

*beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.*

*Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.*

*Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.*

*Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.*

*Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:*

*1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrigo gobernuari.*

*2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.*

*3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.*

*Euskal Herrian 2012ko irailean.*
*Bildu*

Mozioa irakurrita, honako hauek hitza hartu dute:

Cantero jauna: Bilduk aurkezten duen mozio honetan abstenitu egingo gara gu. Nik uste dut hemen gaudenonetatik inork ez duela nahi presoek behar ez den sufrimendurik izaterik, eta are gutxiago 3. gradua lortzeko aukera ezarritako dagoen egoeran, kasu honetan, baldintzapeko askatasuna. Edozein kasutan, uste dugu Udala ez dela bide egokiena, hori legezko erabakia baita; organo judizial bat dago, kontu horien gaineko erabakiak hartu behar dituena, eta beraz, gure aldetik epai bidez erabakitakoa errespetatzea besterik ez zaigu gelditzen, bera baita organo eskuduna; eta haatik, erabakitakoa onartu besterik ezin dugu egin. Guk ez dugu behar beste txosten preso horren egoera egiaztatzeko, baina, horrek ez du esan nahi egia ez denik esaten dugunik, baizik eta soilik ez dugula behar beste elementurik. Eta Bilduk esandakoa egia baldin bada, ba, noski, ados egongo ginateke. Gertatzen da ez dugula elementurik, eta beraz, abstenitu egingo gara. Hala ere, presoei buruz hitz egiten den mozioa honetan faltan botatzen dugu beste kontu batzuei buruz ez aritzea, adibidez, biktimei buruz. Hau da, beste biktima batzuk badirela aitortu behar da, eta horiek ere aipatu beharko lirateke mozio horretan. Era berean, guk ere aitortzen dugu dagokionean -bake prozesuak guztiok gura dugun bezala aurrera egiten badu- presoen gaia konpondu beharko dela, eta konpondu beharko dela ere biktimen arazoa, kasu honetan, ETAren ekintza terroristek sortutako biktimena. Beraz, gu abstenitu egingo gara, errespetu osoa erakutsi nahi dugu, eta esan nahi dugu gai hori, eta konpontzeko dauden beste gai batzuk, konponduko duen adiskidetze eta bake prozesuaren alde gaudela.

Alkateak erantzun dio beraiek egin dutela indarkeria mota guztiak kondenatzeko adierazpen bat, baina, berariaz salatu gura zutela kasu hau, orain dela hilabete batzuk antolatu zen “zirku politikoarengatik”, hiltzear dagoen preso gaixo baten eskubideen aurka PP jartzen ari den trabengatik. Gehitu du, bere ustez, bere taldeak ez duela inolako arazorik gainerako indarkeria motak kondenatzeko, baina, preso horren kasua ekarri gura zutela, ez dadin gertatu berari gertatzen ari zaiona, eta gainera, eskatzen dutela kartzelan jarraitzen duten beste 13 presori ere indarrean dagoen araudia aplikatzea, ez lege berri bat, baizik eta indarrean dagoena, eta 3. gradua eta baldintzapeko askatasuna eman dakiela. Bake prozesuari dagokionez, esan du Aieteko konferentziaren ondoren, eta ondorioz, orain dela urtebete ETAk emandako su etenaren ondoren, badirudiela batzuek aurrera pausuak eman nahi dituztela; eta aldiz, beste batzuk ez dituztela eman nahi, dirudiela horiek erosoago zeudela ETA ekintzak egiten ari zenean; eta horregatik, uste du pausu horiek eman ez dituztenak salatu behar direla eta pausu horiek emateko eskatu.

Cantero jauna: komunikabideetan izan den zirkuari buruz esan duzuna horrela izan da. Alderdikeriaz jokatu izan da, kasu honetan Partido Popularraren aldekoengatik, hau da, legea aplikatzea eskatzen ez duen ideia bat, kasu gehiago egin behar zaio bihotzari arrazoimenari baino, eta gu ez gaude hemen Partido Popularraren jarrerak defendatzeko. Badakigu ere, orain dela 2 edo 3 urte, Juana Chaosekin antzeko egoera gertatu zenean, Partido Popularrak iskanbila sortu zuela egoera hori ekiditeko. Kasu batean zein bestean, beti estatu-arazotzat hartu den eta ahalik eta adostasun handiena eskatzen duen arazo honetan partiduek beraien alde nola erabili duten salatu behar dugu. Alderdi Sozialistak uste du, egoera berria kontuan izanik, espetxe politika gizatarrago batera eboluzionatu behar dela, hau da, ETAk adierazpena egin zuenetik Patxi Lopez lehendakariak egindako adierazpenak bide horretatik doaz. Areago, baita ahal den neurrian presoak beraien etxetik gertueneko espetxera ekartzeko eskaera ere. Eta, esan dudan bezala, auzitegiak errespetatzea. Guk arazo horren aurrean arrazoimenarekin jokatuko dugu, ez bihotzarekin; elkarrekin ditugun aldeak alde, eta nahiz eta pertsonak gaitzetsi: pertsona horiek, eta oinarrizko eskubideak urratuz jardun duten pertsonak. Giza eskubideez jardutea zenbait alderditik nahiko harrigarria da. Kontua ez da iraganarekin kontuak kitatzea, baizik eta etorkizunari begira egotekoa. Nortzuk eman dituzten urratsak eta nortzuk ez esatea... uste dut behin betiko urrats handia ETAk eman behar duela bere desagertzea iragarriz. Ezker abertzaleak ez du inoiz kondenatu, nire ustez, ETAren ekintzak; eta oraindik, atzo bertan, telebista programa batean, Laura Mintegik, BILDUko hautagaiak, esaten zuen kondenak eta gainerakoak alferrikakoak zirela, ba, bale.... hori aukera bat da. Guk biziki kondenatzen ditugu garai guztiak, etor daitezkeen garai berriak ospatzen ditugu, baina, horiek 50 urte lehenago eman beharko lirateke, eta horrela ez genuke izango urte guzti hauetan izan dugun odol arrasto eta isuria. Eta esan dut lehen, auzitegiek esandakoa errespetatzen dugu, kasu honetan beraiek baitute eskuduntza preso horietaz erabakitzeko, eta berdin-berdin onartuko dugu presoak askatzea zein ez askatzea erabakitzen bada. Hemen, zuzenbide estatuak bermatzen du entzungo zaiela, beraiek frogak aurkeztuko dituztela eta gero justiziaren arabera jardungo dela. Zer esango lukete beraien burua defendatzeko aukerarik izan ez zuten edo beraien deskargurako frogak aurkezteko aukerarik izan ez zuten biktimek? Eta gaur, dauden lekuan daude, eta ez preseski kartzelan, baizik eta leku nahiko txarrago batean, eta hor ez dute izango ez inolako baldintzapeko askatasunik ez ezer.

Esan beharrekoak esan ondoren, mozioa bozkatu da: aldeko 4 boto izan ditu eta 3 abstentzio (Madinabeitia jauna, Akizu jauna eta Cantero jauna), eta mozioa onartu da.

**7.- GALDE-ESKEAK.**

Ez dago.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:00etan. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

2012-10-18an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 18-10-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko urriaren 18an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Martinez andrea eta Ezpeleta, Urrutia eta Merino jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 18 de octubre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Martínez y los Srs. Ezpeleta, Urrutia y Merino.

## 1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 21 de junio y el 20 de setiembre de 2012.

## 2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

### 2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 11 de octubre de 2012 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta expresa sobre el siguiente acuerdo:

RESOLUCION DE ALCALDIA

**Nº:** 758

**FECHA:** 2-10-2012

**ASUNTO:** DELEGACION DE GESTION DEL SERVICIO DE MIGRACION

**EXPEDIENTE**:

**INTERESADO:**

Visto lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 44 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre.

**HE RESUELTO**

1. Delegar la dirección y gestión del servicio municipal de Migración a Dña. María Arantzazu Iregui Villar. La delegación no conlleva la competencia para dictar actos administrativos con efectos a terceros.

2. Publicar la presente Resolución en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

3. Dar cuenta de esta Resolución al Pleno del Ayuntamiento.

Eskoriatza, a 2 de octubre de 2012.
EL ALCALDE,

**3.- SANCION POR INCUMPLIMIENTO CONTRACTUAL**

Examinado el expediente de imposición de sanción al contratista del contrato de las obras de "REURBANIZAICON DE SAN PEDRO nº1 º nº 9, iniciado a propuesta de la concejala responsable del área de servicios sociales, con fecha 23 de mayo de 2012 .

Vistas las alegaciones interpuestas por el contratista en el trámite de audiencia y

Considerando que:

**UNO.-** Según el Pliego que rige la contratación, el contratista tenía como obligación la de contratar como mínimo a una persona en situación de desempleo, y tanto esa persona como aquellas otras que precisara contratar debieran de estar empadronadas en Eskoriatza y en paro. A ello hay que añadir que en la cláusula 18, entre los criterios de valoración de las ofertas, se contempla la concesión de 3 puntos por cada persona en paro que se contratara hasta un máximo de 10 puntos.

EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA hizo la siguiente propuesta en el momento de la licitación: CONTRATAR UN NUMERO TOTAL DE 4 PERSONAS EN ESTADO SOCIAL DE DESEMPLEO DURANTE TODA LA EJECUCION DE LA OBRA DE LA BOLSA DE EMPLEO DE LA LOCALIDAD DE ESKORIATZA PREFERENTEMENTE.

A CONTRUCCIONES OLLOQUIEGUI SA se le adjudicó el contrato con sujeción al proyecto redactado por ERAIKI, S.L.U., al Pliego de cláusulas administrativas, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista, entre las que se incluye la contratación de 4 desempleados.

La obligación asumida por la empresa contratista en ningún momento quedó condicionada a la verificación de una necesidad real de contratación de personal. El pliego exigía la contratación de una persona como mínimo al margen de dicha necesidad y EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA, motivo por el que obtuvo puntuación, se comprometió a contratar a 4 personas

De conformidad con lo previsto en el párrafo primero del art. 145 del TRLCSP, la presentación de una proposición supone la aceptación incondicionada por el empresario del contrato de la totalidad de las previsiones contempladas en el pliego de cláusulas, sin salvedad o reserva alguna.

**DOS.-** En cuanto a lo alegado por el contratista en relación al Expediente de Regulación de Empleo y al cambio de las circunstancias económicas:

Cuando EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA presentó la oferta, y así lo reconoce en el propio escrito de alegaciones, ya estaba inmersa en la situación económica que alega. La oferta de contratar a 4 personas en situación de desempleo se hizo estando la empresa inmersa en el ERE. A ello hay que añadir que, de conformidad con el art. 215 de TRLCSP, la ejecución del contrato se realiza a riesgo y ventura del contratista y una situación que no sea de las previstas legalmente, y que en este caso

además tampoco es sobrevenida, no puede ser alegada para justificar un incumplimiento de una obligación asumida voluntariamente.

**TRES:-** En cuanto que INFRAESTRUCTURA MORGON SL, empresa subcontratista según alega el contratista, formalizó 4 contratos, cabe indicar que quien adquirió el compromiso de contratar a 4 personas en desempleo para la ejecución de las obras de reurbanización de San Pedro nº1 º nº9 es EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SL, empresa contratista, a la que se adjudicó el contrato y la que se vinculó jurídicamente con el ayuntamiento.

INFRAESTRUCTURAS MORGAN SL, además formalizó los siguientes contratos:

- Contrato 1: DAVID BOUZA LOPEZ ///Albañil/// 12/03/2012 a 31/03/2012
- Contrato 2: TIAGO ALEXANDRO GABRIEL /// Albañil/// 14/03/2012 a 31/03/2012
- Contrato 3: DAVID BOUZA LOPEZ ///Albañil/// 28/04/2012 a 11/05 /2012
- Contrato 2: TIAGO ALEXANDRO GABIRIEL /// Albañil/// 28/04/2012 a 11/05/2012

Según la cláusula primera de dichos contratos, los mismos se formalizaron por ampliación en la producción de obras en Valladolid, en los mismos no se hace mención alguna que responden a la ejecución de la obras de urbanización de San Pedro.

Con base a cuanto antecede y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**<u>PRIMERO:</u>** Imponer a EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA la penalidad de 22.495 euros.

**<u>SEGUNDO:</u>** Requerir a D. Miguel Angel Bermejo Fraile, para que proceda a ingresar el importe total de la pena impuesta dentro del plazo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente al de la notificación del presente acuerdo, con expresa advertencia de que si no lo hiciera así e ingresara la pena impuesta en dicho plazo, se hará efectiva la misma con cargo a la última certificación-liquidación de las obras, cobrándose el resto mediante el procedimiento de apremio y, si así fuera necesario, con cargo a la garantía definitiva .

**TERCERO:** Facultar al Sr. Alcalde para que adopte los acuerdos que procedan en aras a hacer efectivo el cobro de la pena impuesta.

**<u>4.- CONVENIO DE COLABORACION CON ESKORIATZAKO KIROL ELKARTEA</u>**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

**<u>Primero:</u>** Ceder en precario a Eskoriatzako Kirol Elkartea el local sito en Intxaurtxueta 9 bajo para que en dicho inmueble la asociación tenga su domicilio social.

La cesión del local se hace bajo las siguientes condiciones:

1- La cesión de uso que se hace es en precario, es decir, sin contraprestación alguna.

2.- La cesión se concede por un plazo de 4 años a contar desde el 1 de enero de 2013, si bien podrá quedar suspendida previamente :

a) Con la reclamación del local hecha por el Ayuntamiento con tres meses de anticipación y previa justificación de razones de interés público o social que así lo aconsejen.

b.) Con la devolución del local por parte de EKE

3-Serán a cargo del Ayuntamiento de Eskoriatza los gastos de mantenimiento de las instalaciones, así como el suministro de energía eléctrica, agua, calefacción, limpieza y la cobertura del servicio de recogida de basuras correspondiente a dichas instalaciones.

4.-Deberá permitirse al Ayuntamiento o a sus mandatarios el libre acceso a las diversas dependencias del local para el oportuno control y ejercicio de sus funciones de reparación y mantenimiento.

**Segundo:** Formalizar con Eskoriatzako Kirol Elkartea un convenio que regule las condiciones a las que queda sujeta la cesión del local referido en el punto primero y la concesión de la subvención concedida con cargo al ejercicio 2012 y la de ejercicios futuros.

## 5.- BAJA EN INVENTARIO DE BIENES

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Dar de baja en el Inventario Municipal a los siguientes bienes:

- RICOH Aficio 1013F existente en la casa de cultura. (Impresora, fotocopiadora, fax)
- RICOH Aficio 1018 D existente en urbanismo (impresora, fotocopiadora)
- Canon IR 4570 existente en secretaría-intervención. (impresora, fotocopiadora)
- RICOH Aficio 1027 existente en recepción (impresora, fotocopiadora , fax)
- RICOH Aficio 1022 existente en biblioteca (impresora, fotocopiadroa)
- RICOH Aficio 3222 existente en museo (impresora)

## 6º.- MOCION PRESENTADA POR BILDU EN FAVOR DE LOS DERECHOS DE LOS PRESOS ENFERMOS.

El alcalde lee la parte dispositiva del testo de la moción cuya copia se transcribe a continuación:

**MOCIÓN a favor de los derechos de los presos enfermos**

Estamos viviendo una situación muy cruda desde el punto de vista de los derechos humanos. Las últimas semanas hemos tenido sobre la mesa la situación irreversible del estado de salud , del preso Josu Uribetxeberria. En cumplimiento de la ley, aunque tarde, el preso de Arrasate ya esta en libertad condicional. A día de hoy , todavia hay presos gravemente enfermos que siguen en prisión. Trece ciudadanos concretamente. Esta situación esta agravando su estado físico y aumentando la inquietud de sus familiares. Se les están negándo los derechos que tienen como personas y como presos.

El tratamiento y seguimiento de las enfermedades que sufren estos trece presos, es incompatible con su mantenimiento en prisión por las siguientes razones: la cárcel no puede dar tratamiento especializado; estas enfermedades nece-

sitan un cuidado riguroso; la falta de capacidad de dar una respuesta ante una posible urgencia estando en la cárcel; en el caso de Josu Uribetxeberria, se han reafirmado ante el Ministerio del Interior de Madrid todos estos argumentos.

Después de la puesta en libertad condicional de Josu Uribetxeberria, atendiendo a los mismos argumentos antes mencionados, hay que excarcelar a los otros trece presos que padecen enfermedades graves e incurables. Estos trece presos y sus familiares están sufriendo un castigo añadido. Negando la libertad condicional a estos presos, los responsables políticos de Madrid están quebrantando los pilares básicos de los derechos humanos.

Las normas, principios jurídicos y reivindicaciones a favor de los derechos humanos tanto internacionales como del estado español declaran la necesidad de respetar los derechos de las personas presas que tienen enfermedades graves e incurables. Estas personas tienen que recibir el tratamiento y cuidados médicos que necesiten y en las condiciones requeridas, por que es un derecho básico.

Teniendo en cuenta todo ello, presentamos estos puntos al Pleno de este Ayuntamiento para que sean debatidos y aprobados:

1.- Este Ayuntamiento quiere expresar su preocupación ante la situación de urgencia y gravedad de los presos enfermos. Al mismo tiempo insta al gobierno de Madrid a dar pasos reales ene l cumplimiento de la ley vigente de acuerdo con la voluntad de la mayoría de este pueblo.

2.-Este Ayuntamiento, teniendo en cuenta las leyes internacionales y españolas, pide la libertad condicional para estos trece presos con enfermedades graves e incurables. Para que reciban los tratamientos de salud necesarios en las condiciones convenientes y que esta situación no suponga una condena añadida para ellos y sus familiares

3.- Este ayuntamiento comunicará esta decisión al Ministerio del Interior y al Juez de Vigilancia Penitenciaria de Madrid, así como a los medios de comunicación

En Euskal Herrian septiembre de 2012.

Bildu

Leído el texto de la moción, se dan las siguientes intervenciones:

Sr. Cantero: Por nuestras parte vamos a abstenernos en esta moción que se presenta por parte de Bildu. Yo creo que ninguno de los que estamos aquí presentes queremos que los presos sufran sufrimientos innecesarios, y más en la situación en la cual está establecida la posibilidad de acceder al 3º grado; y en este caso, de la libertad condicional. En cualquier caso, entendemos que el ayuntamiento no es el cauce adecuado, ya que esta es una determinación legal, que hay un órgano judicial, que es el que tiene que conocer de estas cuestiones, y por lo tanto, por neutra parte no hay mas que un respeto a lo que judicialmente se determine, que es el órgano competente, y, por lo tanto, el acatamiento. Por nuestra parte no tenemos informes suficientes no acreditación de la situación en la que se encuentra, lo que no quiere decir que digamos que no sea cierto; sino que simplemente que carecemos de elementos suficientes. Y si es cierto lo que aparece por parte de Biledu, pues obviamente estaríamos de acuerdo. Lo que pasa es que no tenemos elemento, y por tanto nos vamos a abstener. De todas maneras, echamos de menos en esta moción que se habla de presos y que no se habla de otra serie de cuestiones, como es el tema de las víctimas. Es decir, tiene que haber un reconocimiento de que existen otras víctimas, que también debieran de haber merecido mención en esta moción. De la misma manera que reconocemos que en su momento, si el proceso de pacificación avanza como todos queremos, pues que se resuelva el tema de los presos, y también que se resuelva el problema de las víctimas que se ha dado lugar, en este caso, por parte de la acción terrorista de ETA. Por lo tanto, nuestra postura es de abstención, de respeto absoluto y de entender que apoyamos el proceso de reconciliación y pacificación que resuelva esta cuestión y que resuelva otras cuestiones pendientes.

El Alcalde le responde que ellos ya han hecho una declaración condenado todas las violencias, pero que querían denunciar de forma expresa este caso por el “circo político” que se organizó hace unos meses, por los obstáculos que está poniendo el PP contra la defensa de los derechos de un preso enfermo en fase terminal. Añade que cree que su grupo no tiene ningún problema en condenar el resto de las violencias, pero que querían traer el caso concreto de este preso para que no vuelva a

ocurrir lo que a él le está ocurriendo; y que, además, solicitan que a los otros 13 presos que siguen en la cárcel se les aplique la ley vigente, no una nueva ley, sino la ley que está en vigor y se les conceda el 3º grado y la libertad condicional. En cuanto al proceso de pacificación, dice, tras la conferencia de Ayete y consecuencia del alto al fuego de hace un año por parte de ETA, parece que algunos quieren dar pasos hacia adelante, y que sin embrago otros no los quieren dar, parece que éstos se sentían más cómodos cuando actuaba ETA; y que por ello cree que también hay que denunciar y pedir a los que no dan esos pasos para que los den.

Sr. Cantero: En cuanto a lo que has comentado sobre el circo mediático que se ha producido, efectivamente. Se ha producido una utilización partidista, en este caso por los sectores del Partido Popular, es decir, una idea por la cual no habrá que aplicar la ley, hay que dejarse guiar un poco más por el corazón que por la razón; y bueno, nosotros tampoco estamos aquí para defender las posturas del Partido Popular. También sabemos que hace 2 o 3 años, cuando se produjo una situación parecida cuando Juana Chaos, el Partido Popular montó también un circo para evitar que se produjera. Lo mismo en un caso que en otro debemos denunciar esa utilización partidista que se ha hecho de una cuestión que siempre se ha calificado como una cuestión de estado que exige los mayores consensos posibles. Por parte del Partido Socialista entendemos que, efectivamente, se debe de evoluciones en una política penitenciaria más humana teniendo en cuenta la nueva situación creada; es decir, las declaraciones del lehendakari Patxi López desde el momento en que se produjo la declaración por parte de ETA van en esa dirección. Es más, incluso la postura de pedir que se facilite en la medida de lo posible el acercamiento de presos a lugares más próximos a sus domicilios. Y el respeto, ya digo, a los tribunales. Nosotros no vamos a hacer de esto una cuestión de corazón sino de razón, por muchas diferencias que tengamos y por mucho que condenemos a las personas, a esas personas, y a otras personas que han actuado violentando los derechos fundamentales. Hablar de derechos humanos según desde qué sector es bastante chocante. No es cuestión que ahora mismo de hacer ajustes con el pasado, sino de esperar al futuro. Decir quiénes han dado pasos y quiénes no han dado pasos, creo que el gran paso definitivo quien tiene que darlo es ETA anunciando su disolución. Por parte de la izquierda abertzale en ningún momento se ha condenado , yo entiendo, las acciones de ETA; incluso ayer, en un programa de televisión, Laura Mintegi, candidata por BILDU, decía que era inútil aquello de las condenas y demás, pues bueno... Esa es una opción. Nosotros condenamos vivamente todos los tiempos,, celebramos los nuevos tiempos que se puedan dar , pero probablemente se deberían de haber dado 50 años antes, y no nos hubiéramos encontrado con una estela, con un reguero de sangre que se ha producido en todos estos años. Y ya dije, respetamos lo que digan los tribunales, que en este caso son los competentes para tratar sobre estos presos, y acataremos lo mismo se decrete su liberta que lo mismo se decrete su no libertad. Aquí el estado de derecho garantiza que ellos serán escuchados, que ellos presentarán pruebas y luego se actuará conforme a justicia. ¿qué dirían aquellas víctimas que no tuvieron su oportunidad ni de defenderse ni de presentar pruebas en su descargo? Y hoy están donde están, y no están precisamente en la cárcel, sino que están en un sitito bastante peor del cual no se van a poder beneficiar ni de ninguna libertad condicional ni de nada.

Terminadas la intervenciones se voto la moción. Con el resultado de 4 votos a favor y 3 abstenciones (Sr. Madinabeitia, Sr. Akizu y Sr. Cantero) la moción es aprobada.

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:00 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**